

Euskalerrian euskeraz EUSKERA ZALEAK

2015-2016 IKASTURTEA

BIZKAIERAZ 48. IKASTAROA IRU MAILLA

Egunak: astelen eta eguasten
edo astearte eta eguenetan

Orduak: Goiz eta arratsalde

Ordaña: 150 €

Izena emoteko tokia: Euskerazaleak

Colón de Larreategi, 14-2
urrutizkiña 94 423 53 22
Bilbao 48001

Asiera: urriaren 13an

48. CURSO DE EUSKERA BIZKAINO 3 NIVELES

Días: lunes y miércoles
o martes y jueves

Horas: Mañana y tarde

Curso completo: 150 €

Inscripciones: Euskerazaleak

Colón de Larreategi, 14-2
Teléfono 94 423 53 22
Bilbao 48001

Comienzo: 13 de octubre

ZER ALDIZKARIA

Ordaindu, mesedez, ZER aldizkaria! (ogeitamabost euro) kontu onetan:

EUSKERA ZALEAK
BILBAO BIZKAIA KUTXA
ES28 2095 0000 74 2000089615

Adiskide! Mesedez ZER aldizkaria aurrera erobatan lagundu eiguazu!

Ebagi orri onetan txarteltxu au, eroan BBKra eta ordaindu 35 €.

Ez dozu ezer be idatzi bear.

Baiña, aztu barik, esan Kutxan zeure izena eta zeure errikoa.

Eskerrik asko!

Euskerazaleak

ASOCIACIÓN PARA EL FOMENTO DEL EUSKERA

Colón de Larreategi, 14 - 2.º dcha.

48001 BILBAO

Urrutizkina : 944 235 322

info.euskerazaleak@gmail.com

Laguntzaille



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia

ISSN: 1132 - 1350

Lege gordailua: BI-1452-85

EUSKEREA

Atutxa'tar Paul, Zornotzan, 2.015eko urtean Garagarrilaren 24'an

Euskerea, gure artean berba egiteko gai bat bakarrik ote da?

2.015'eko urtean Garagarrilla'ren 21'ean:

Aguraingo errian, klaretiarren egoitzan, 2.015ko garagarrilaren 21ean Euskerazaintza erakunde lez batzartuta, lendakariak, esan euskun, euskalzale jakintsuek diñuela, "*Euskerea gure artean alkarrerri barri emoteko bidea dala*".

Euskerazko izkuntza gure artean berba egiteko tresneri bat da, bizitzeko bear doguzan edozelako langailluek legez, adibidez: gazteluak gure babeserako, etxeak gure sendien abia izateko, dirua gure artean ordezkartzarako, bizitzan erreztasunerako doguzan berebil, txirringa, gurdi, igitari ta abarrekoak.

Lan-gaillu orreik daukien mezua baiña, munduko errigizarteari, gero ta babes geiago emonaz gaiñ, bizitasunaren antolamenduzko ekintzari erreztasun andiagoa emoten dausie, gaiezko mundu onek bere aldaketazko bilbakuntzagaz⁽¹⁾, itxurazko arloetan eten bageko aldaketa bat aurkezten dauskulako bere ezberdintasunezko arazoetan. Beraz bakandu ta neurriz ondo egokitu bear doguzenak dira, gaitasunean zentzu andikoak izan daitezen.


Dana dala, ondo egokitu bear dogu tresneri edo ibil gaillu ugari gure bizitzazko ekintzan, bakardadezko erreztasunetik, erreztasun andiagora iristeko korapillo geiegi barik.

Orain jakin bear doguna, erreztasunezko eragilletasun ori non aurkitzen dan.

Gazteluak. Gure babeserako izanda, elitekez edozein eratarra eginda egon bear. Etsaiek guda edo borrokarako daukizan sendo ta indartsu gailluakin, errez botako leukiezalako gaztelu orreik.

(1) Aldaketazko bilbakuntzagaz = *imparable desarrollo cambiante de la materia.*





Gaztelu orrean eragilletasuna edozein tresneri bezela, ondo landutako arri ta obeto erindutako arri bakoitza, euren lekuetan estu edo ta doiki kokatuta artzen dauan indarragaz, ez dago guda-gaillurik gaztelu ori aín errez botako leukenik.

Eta Jaungoikoak mundu fisiko onetan bereiztu eban Lege ori, gizakiak bere bizitzarako bear dauan tresneria bardiña izanik, ondo egindako gauzak sendo ta indartsu biurtzeko dira gure artu emonetan.

Begitu, diruaren tresneriagaz zer sortuten jakun.

Diruak ez dauko beste merezimendurik, guk, gure arteko zorrak ordaintzeko ekintza nagusian bete bear dogunaren tresneria izatea baiño.

Gure arteko sakratuzko legea, ekanduzko ardurea da, gazteluaren arriekaz sortuten dan antzera.

Begitu, baña, gaur egun diruagaz gertatzen dana: tresneri uts bat izatetik, norkeri bidez sasi-jainko biurtzen dala.

Tresneriaren izatasun itxura bagekoa biurtuten dira sakratuzkoak izan bear ziran ekanduzko ordezkartzaren ardurak, oreka guztiak galduaz, guzur ta maltzurkerizko lokatzarte biurturik.

Izkuntzatan bardin.

Jakin bear da zelango izkuntzak diran, jendekuntzazkoak ala erromatar antzeko zapaltzalleak, Gaztela, Bable, Nafar-aragoiko latin-kume lango sasi-izkuntzak eratuaz.

Baiña zer gertatzen jaku Euskereagaz ?

-Jendekuntzazkoa izanez gaiñ, benetako altxor aundi bat daukagunez esku artean, ezin dogu edozelan erabili, denbora barri onetan.

-Bere itzen arteko erintasunezko kokamena galduagaz gain, euskerearen nortasunean, indarrezko zentzua galtzen dau eta bera-gaz, gure arbasoek millaka urtetan ikerpeneko atun-bidean lortu ebena, galdu edo makaldu egiten dala.

-*Euskalduna*, ondorioz, aitor, oituraz edo ta jatorritasunez, baituta daukan askatasunezko demokraziaren nortasunezko zentzu ori kendu ezker, ez da ezer.

-Nortasunaren demokrazizko zentzu ori da, zaindu bear doguna eta ez txotxolokerietan ibili. Edozer ona nai dauanak, egiz,

demokraziz, edo zentzu orregaz, ondo erindatuko tresneriagaz lortu daikelako.

-Euskerea jendekuntzazko izkuntza izateagaitik, azaltzen dauazan berbakaz argibidetu egiten dauan gauza ederrena “Berbearen Irudimena da”, urte askotan ta bereztasunaren iker-bidetik ardu-ra andiz, lortu leikena bakarrik.

-Goazen ba, euskerea tresneri lez benetan zer dan jakitera, euskal zentzuan bizi gura dabeneztat, bearrezkoa dalako.

Euskaldun arbasoek, 30.000ko urte askoren ikerpeneko atun-bidean⁽¹⁾ edo ta aztura bidetik⁽²⁾, ondo erindu ta biribildutako lanean lortutako itzak, euren lekuetan ondo aokatu, ta bete-betean egokituta geratu diranakaz, euskerearen gaztelu ederrena eraiki eben.

Lur, aize, ur, itsas-abeldi, eta bizitza orokorrezko lur onek daukazan loredi, landaredi, lur-abeldi, are, arri, arrikatz, burdin-meatz, kobak eta agertzen diran era guztietako irudiak, zentzu aundie-nean izendu ebezan.

Gure izen-abizenakaz eta ekanduaren arloan bardin jokatzuz, euskeraren berba bakoitza leku, era, aukera edo ta zeregiñezko gauzatan, esaeraren zentzuzko argitasun ederrenean irudimenduta kokatzen gaitu.

Euskaldunak, alako berezkitasunaren izkuntz-ederragaz jendekuntzatuta, ez ote gara izango, egia ta askatasunaren demokrazi zaleak ?.

Orañarte eta ziur nago emendik aurrera-be alan izango dala, euskaldunen berbea, kidetuta egon dan lekuetan, egia-zen-zentzunkidezko labelekoa izan dalako beti.


Eta demokraziak ainbeste kalte egiten dautsolako menperatze asmamenari, ez dabe askatasunik nai euren inguruan. Or dabil-tza gudako indar keñadurakaz, berezko nortasun ta izkuntzak aienatu ta desagertzeko alegiñetan.

Mundu onetako sasi-jainko eretxi orreik, oso erpe sakonak daukiez aspalditik, merkataritzaren mozkin guztien indarrak euren kontrolpean erabilliaz, asmakizunezko ta ametsezko sasi-iruzur-gille orreik lortzeko.

Beti alan be, jainkoak agindutako berezko legeakaz aurkitzen dira, eta, ara! nun agertzen jakien euskal gizarte bikaña, Europak Omosapiens ostetik izkuntz ta demokrazi zaarrenak daukazana.

Nik, zalantza barik esaten dot, Jainkoa ta bere legearen aurka dabil-tzala jokatzten.

(1) Atun-bidean = procedimiento empírico. (2) Aztura bidetik = crecimiento del conocimiento.



Euskerearen berbetan, irudimenezko zentzua.

Orain, ikusi bear dogu euskal izkuntzan agertuten diran itzak, alkar-izketaren zeatezko zentzuan, irudimenezkoak dirala.

1.960ko amarkadan, Espaniako ele-jakin-tzaren irasle edo sortzaille izandako Menendez ta Pidal'tar Ramoneri euntzun neutson: *Gaztekeraren latinkumea irudizko zentzuan sendotzeko, 1.971 euskal itzak tartean sartuta egin bear izan ebala, eta a ta guzti, irudiaren zentzuzko bagetasunean geratu zala.*

Adibidez *playa* itzak, zelango zentzuzko irudian irudimenduta kokatzen gaitu?

Ba ote dauka zer ikusirik areagaz, esaten jakon leguntasunegaz edo ta areatutako arri ta maskor ondarragaz?

Euskeraren itzak, Laida, Ondarru edo Mutrikuren itsaz-bazterreko ondartzak aipatuten doguzenean, ez ote gaitue kokatuten, adierazi gura doguzan lekuetan ?

Euskereak, ez dau galdu bear, Omosapiens, Kromañon edo ta euskaldunak, millaka urteetako bakardadezko azturan, bizitzari adierazpeneko ekintzan emon eutsozan zentzuzko xeetasunetik ezer. Or dago ta gure jendekuntzaren baitazko garaipena, batez be gure nortasunezko oituran demokrazizko zentzuan lortu gendun euskal demokrazizko izatazun ederrena.

Eta Europako edestian menperatzen ibili ziran erromatar ta mauritarren izkuntzetatik berba asko artu ba eben-be, sekula ez zan aldatu beren jendekuntzazko nortasunaren zentzu demokratikotik.

Felix Zubiagak, bere liburu "Vascoeuropeismo versus Indoeuropeismo" III n. zatitik etorrita, liburuaren 49 n. orrian esaten dau:

"Izkin bateraño aztertu egiten dauan mintzoera edo izkuntza batek, jatorriz edo sortzezko izkuntza dala.

-Izkin bateraño eltzea, eredu nagusiren ozenezko⁽¹⁾ iturria argitzea dalako berberaren mintzo edo abots sorkuntzan.

-Eta Euskerea, al dalako izkin bakarreraiño eldu, orain ezin dala esan, alderatzailleak⁽²⁾ esaten daben antzera, Euskerea jatorriz, ezagutzen ez dan mintzoera bat dala.

Mintzoeraren oguzpeneko⁽³⁾ jaiokeran, bera dalako berezko aitortzaille.

Orregaitik, mintzoeraren jatorrizko itz bakar bidetik eta onen eredu nagusiko leen analoji arauz, beren jaiokera argitzen dauan izkuntz bakarra.

Euskereak zelako irudiagaz itxuratzen ote dau Euskalerria?

Euskalerrriak daukan nortasunezko irudi ederragaz itxuratzen gaitu euskaldun guztiok.

Maitetasun guztiagaz erkidetzeko egin gendun tresneri eder au, ez dalako gatz-gabeko mezu gaillu uts bat, gure artu emonetan ibilteko bakarrik.

Bere barnean ikusten diranak:

Bere Euskal barnetik agertuta ikusten diran egipideak:

a).- Jainkoari begira, Beren legearekin euki gendun oarmeneko samurtasuna⁽⁴⁾.

b).- Senitarte ta erri maillan maitasunezko ulermena.

d).- Gure ekanduzko baitaren bake edo orekagaitik, azturazko jakintzan egin bear ginduzenak, zentzunezko ta zeaztasunaren begirun aundiekin egin genduzelako, ardura aundiko erantzunpidetza.

-Euskal bizitzarako edo eta erriaren babeserako, euskereak daukan indarragaz egin bear doguzan gauza guztietarako, berez agertzen jaku maitetasunezko gaitasuna⁽⁵⁾.

-Gure arbasoen arremonezko gauzak, zentzun andiz eroanda egon ziralako, eta demokraziaren ulermen aundi batera elduta bizi ziralako, sendimendu ber berori sartu eutsoen euskereari.

(1) Ozenezko= sonoro. (2) Alderatzailleak = comparatistas. (3) Mintzoeraren oguzpena = pronunciación de las palabras. (4) Oarmeneko samurtasuna = atención, sentido de la observación. (5) Maitasunezko gaitasuna = buenas dotes, talento.



-Orregaitik euskerea ez da edoze-lako tresneri uts bat; bera dalako gure nortasunezko ama, euskal izatasuna bear dan zentzunezko lekutik bideratzeko.

-Etorkizunean be, euskerearen maitasunezko zentzutik artzen doguz nortasunezko izatasunak, mundu guztiko gizarteari erakutsiz, euskaldunen nortasunezko egi bidea.

-Menperatzaillak, euren nagusitasuna erakusteko, xautzailletasunezko⁽¹⁾ argi bideakaz ganoragabetu gura dabe bizitz au.

Ez gara jausi bear txebera orretan, bestela gudakin ez ebena lortu, gure iñozokeriakaz lortuko dabe.

Geiago bear ete dogu ?

Ba, kontuan euki, gure arbasoek euskereakin egin eben lez, guk

elikatu bear dogu zentzu andiz nortasunezko demokrazia on bat, euskal izatasunean iraun gura ba dogu.

Emen txantxaka ibilita, begitu zer esaten eban Orejatar Martzelinok: ETA´tarren esanak eta mezuak sinismenean edo kontuan aundian artzeko: *Orreik ez diralako gai, guzur bat esateko be.*

Eta munduko gizarte ezagunek, irudi orregaz ikusten ote gaitue Euskaldunak?

Lur ta errigizarteko aunditasun ostean, erri txiker bateko neurrian geratu gara. Menperatzaillan alegiñak edesti guztian, aundiak eta eten bakoak izan dira, baiña gure nortasunezko demokraziak

zabaltzen dauan dirdirazko argitasuna, munduko edozein lekutik ikusi daitekena da.

-Euskereak, nortasundu gaitu euskaldunak.

-Euskerearen itsasontzi orrek baiña, etenbageko alegin onenagaz, eta jendekuntzan lortu eban garaipeneko apainketa eder orregaz, munduko errigizarte ezbar-din artean asi eban itsaskuntza gogorra.

-Orregaitik, gaur, bere nortasunezko kai-lekurako itzulaldian, ez dauka itxura bardiña edestiarren gudako itsasketa luze orrek, Alegiñ guztiak ipini bear dira, leen nortasundu ginduzan itxura ber bera artu dagian, aurrean daukagun askatasunaren itsasketarako.

(1) Xautzailletasunezko = despilfarrador, aniquilador, expendedor, malgastador.

EUSKALDUNAK 98'KO GIZALDIAN SARREREA


Gizaldiak esaten jakenak giza-talde batzuk dira eta euren inguruakaz pentsabideak alkar banatzen dabez. 98'ko gizaldian esaterako, koloniak galduak izatea eta Gaztela'ko ikuspegia dira nagusi espanyatarren artean.

1898n. urte orretan Bilbao'k 78 000 biztanle eukazan eta gero arin egin zan aundi.

Urte orretako urtarrillean izparringi barria sortu zan La voz de Vizcaya izenagaz, zezeillean Kosme Txurruka foruzalea il zan eta mundu barriko guda bizi-bizi dago eta amaitu be egin zan. Aldi orretan urten eban aldun Sabino Arana'k.

Madrid'en, urtarrillaren lenengo egunean Kuba'ko agintari barriak zin egin eben, Laterri Ba-tuak guda egiten asi jakuzan. Maiatzean Filipiñetan urperatu eben itxas-ontzirik ederrena eta Santiago'n beste bat.

Bizitza barri bat dator, utsetik asi bear dana. Eskuzuriak, langintzak eta salerosketa ondo doaz eta azi egiten dira, uriak aundiagotzen doaz, langilledia itxartu da, abertzaleak alboetan bizi dagoz, jakitunak ardu-raz dagoz eta danen gaiñetik eta bizien Unamuno dabil.



BA-DAGO 98'KO GIZALDIRIK?

Buruz esaten da koloniak galdu ziranean sortu zala, baiña kideko diran guztien ardurea da ori?

Ezetz diñoek kideko diranak: Azorin'ek asmautako gauzea dala diño, Valle karlistea zan, Unamuno ta Baroja parlamentuaren aurka dagoz, Bueno'k auteskundera guzurrezko bidea dala diño: lurlangilleai autarkia erosi egiten jake, uriko langilleai ardu ordez eskatu.

Baroja'k geiengoen diktadura dala diño, Unamuno'k ez dau goratzen demokrazia. Maeztu'k bera ez dala 98'koa esan eban. Gaiñera 98 urte ori ez da idazleen asierea: Baroja'k 1900 asi zala diño eta 80 baiño lenago asi zala Unamuno, 93'an Azorin. Idazleak ez dira bat gaietan, ez gurarietan, ez adifean... Asmakizun utsa da 89 gizaldia.

Baiña burutasun ori aurrera doa. Azterlariak dira guztiak, ederbide barri bat nai dabe Gaztelan, España'n eta Europa'n. Irudi bakarra eta barezia dauko bakoitxak: Valle Inclan betaurreko bakarragaz eta aterki gorriagaz; Benabente txikia eta beti txokorra agoan dauala, Maeztu beso aundiai eragiten eta Unamuno txaleko itxiagaz eta kapela biribillagaz. Danak burgesikoak eta Ego-Amerika-zaleak.

GITXI EZAGUTUAK:

- Jose Elola: Izparlaria, ipuiñak eta antzerkiak...
- Jose Lazaro: Museoa, La España Moderna aldizkaria sortu...
- Juan Arzadun: Militar Zibil agintaria: Ipuñak, elebarriak, antzerkiak.
- Rodrigo Soriano: Erbesteratua, Vida Nueva sortu eban, Txile'n enbaxadore.
- Zuloaga: Margolaria, ikuspegiak.
- Juan Etxebarria: Izparlaria.
- Dario Regoyos: España Negra ulertzen.
- Rikardo Gutierrez Abaskal: Ederti-aztertzaile, ertilari euskaldunak aztertzen.
- Pablo Uranga: 98'koen erdian dago.
- Juan Madinabeitia: Oñatiarra, osagillea eta lan aundiak. Izlari ona.
- Biktoriano Juaristi: Aldizkarietan eta elebarriak.




JATORRIZ EUSKALDUNAK

- Eduardo Zamakois: Elebarrigilea, filosofoa, idazlea, gudako barriak (14'ko gudan).
- Ziro Bayo Segurola: Ama gizpuzkoarra. Elebarriak eta olerkiak.



EZAGUNENAK

- Rikardo Baroja: Teruel'ek agiritegian, Madrid'en ogitegian, antzerkiak, baiña aurre-rapen aundirik ez.
- Pio Baroja: Abadeen aurka beti, baiña abadeak be azkenean pozik irakurten dabe. Guztiak eukiten dauz aurka.
- Maeztu'ko Ramiro: Batzuntzat onena, besteentza ezer eza. Aldizkarietan asko eta zorrotz, aberrikerietan eta abaden aurka.
- D. Juan, D. Kixote ta Zelestina dira bere mitorik gurenak. Eta Defensa de la Hispanidad bere gaia: Hispanidad izen au Zakarias Bizkarra gotzain euskaldunak asmatua da eta Maeztu'ren buruan gogo bidez Amerikak barriro eskuratzea da.
- Manuel Bueno: Anarki-zalea, modernista, libre. Aldizkarietan idatzi eban ondo. Gudan erail eben (1936). Demokrazia ez dau onartzen edo zalantzan dauka: Ezjakiñen gogoia ezarten dautse geienak diralako guztiak.
- Migel de Unamuno: Ez eban nai 98'koen buru izan, baiña guztiak dauke buru lez. Burruea eukan barruan beti.



ONDOREGOAK:

- Grandmontaigne: Sendi euskalduna Ameriketara joan eta txiro etorri. Asko idatzi eban. Donosti'n il zan.
- Jose Maria Salaberria: Ogetak liburuak idatzi ebazan eta 10 000 artikulu. Gaiñera elebarriak, ipuiñak, bizitz-edestiak...

Ez dau entzun gura 98'koa danik.

† OLAZAR'tar Martin'ek



Azken Artzaren, Azken Atsa (Arnasa)

Asier Legarreta (Kamil)

EUSKERAZALEAK ALKARTEA. BILBAO.
2014ko sari leiketa. Laugarren saria

Joan dan neguan jaió nintzan neu bakarrik nengoan familia batean. Aita ez dot ezagutu, baña oso indartsua eta andia dala esaten eben danak. Ama osterá ona, goxoa eta atsegina zan. Ni lango artz txikitxua, egunero ia iru urtez mantendu eban txeratsu.

Ni jaió nintzan eguna, oso gogorra izan zan, seguru asko kobatik oi baino beranduago urten genduan edurak urteera zarratu euskun eta.

Lenengo illetan esnea baño ez neban edaten, oraintsu asinaz gaztañak, perretxikoak eta lur azpian bizi diran animalia bigun eta gozoak jaten.

Bizi nintzan lurraldea zoragarria zan, baso zabalak egozan, erreka garden eta eta ur bizikoak egozan inguruan. Mendi tontorrean atxak ikusten nebazan, baña bertara eltzea ezinezko zan.

Amatxuk esaten eustan arreba edo arrebatxua izango nebala, eta ni ori entzutean sano pozik jarri nintzan, lagun egiteko ondo etorriko jatan.

Illabeteak konturatu be egin barik pasatu jatazan. Gogoan daukot, zelan arrantzan joaten giñan ama eta biok,



beko errekarara. Arrantza egitea ez zan bape erraza, amatxuk arrain andiak arrapatzen ebazan, baña nire erpa txikiekaz arraiña ukitu orduko errekan gora joaten zan iesi. Azkenean bat arrapatu neban, oso txikia zan, baña nik arrapatutako izokiña zan eta goxo-goxo jan neban. Eskerrak amatxuk izokin geiago arrapatu ebazala, bestela a zer gosea!

Beste baten, ordu arte inoz ikusi gabeko animalia egalarriak ikusi nebazan, durundi itzela ateratzen eben egaz egikeran eta gauza goxo eta itsaskorra egiten eben enbor zar baten barruan. A zer tripakadak egin nebazan andik aurrerantzean eztiarekin!

Amak gauza garrantzitsua azaldu eustan goiz eguzkitsu aretan.

- Semetxu, artzak garenez gero, beti ezin geintekoz leku batean egon. Mugitu bear gara arrazoi bi nagusigaitik. Bata, janaria urrituz doan

- Iurraldetik alde egitera beartuta gagoz, janaria ugari dagoen lekuetara joan bear dogu ezinbestean. Bigarren arrazoia zera da: artz ar andi bat dabil emendik urrean eta zu ikusten bazaitu min artu zeinke.

Nik orduan:


- Ama, ni ondo portatu naz eta zergatik egin bear deust min? Ganera nire aitatzuk defendituko nau...

Amak orduan:

- Badakit, seiñe, baña naturak olan jarri ditu artzarentzako bizi-baldintzak eta guk onartu bear doguz gura edo gura ez.

Bost egun pasa genduzan, ibilli eta ibilli, geratu barik. Goseak amorratzen nengoanean geratzen giñan soillik, gero andik gitxira barriro asteke gure ibillaldi neketsua.

Eldu giñan amari gusetetan jakon leku batera. Ama urtero egoten zan



eta bertan seguru gengozala azaldu eustan. Alatan be, bere ondotik ez aldentzeko inoz, agindu eustan.

Mitxoleten atzetik ibiltzea asko gustetan jatan. Gora eta bera egan egiñaz, kolore biziakaz, ez-oiko era-giña sortzen eban nire begi txiki-txuen inguruan.

Arratsaldea amaituz joiala, egun baten, nire betiko ibillerak egiten nenbillela, galdu egin nintzan, ez nekian amatxoan ondora itzultzen. Azkenik gaua nagusitu zan, bere soñeko baltzaz dana estali eban. Dana egoan illun, eta ordu arte inoz entzun bageko zaratak entzuten asi nintzan.

Aritz zar baten enborra artu neban buru azpian eta bigun eta leor egoan leku batean lo jausi nintzan seko, neukezan indar apurrak alde egin ostean.

Urrengo goizean bide zidor batetik noiala amaren orroa entzun neban urrinetik. Entzun eta jarraian emon neutson karradereari. A zan poza! Amagaz aurkitu nintzanean, biotzak be ia lekutik urten eustan.

Amatxuk orduan:

- Laztana, oso kexkatuta egon naz zeozer txarra gertatu jatzulakoan. Ganera zuk ez dakizun arazo baten barri emon bear deusut. Geure moduan zutunik dabilen are-rio zuur eta maltzur bat daukagu, gu eurok baino indartsuagoak gara, baña sua puntatik botaten dabean makilla batzuk daukiez eta munduko artzik andiena ilteko gai dira urrinetik. Ez da lenengokoz gerta-

tzen dan egoera bat, zoritxarrez gutariko asko akabatu dabez era beretsuan. Igaz zure aitite izan zan euren jausi zan azkena.

- Ez gara askorik geratzen eta tentuz ibilli bearra daukagu bizi iraupena ziurtatzeko.

Ni zur eta lur nengoen. Barruan izua eta jakin-mina nastean nabaritzen nebazan. Alde batetik animalia arraro ori ikusi eta ezagutzeko go-goa neukan, baina beste alde batetik, beldur nintzan zer gertatu aal zan ez nekialako demoniño orren aurrean.

Amaren jarduna ia aztuta neukan, urtean zear gauza ugari gertatzen diralako artz txiki baten bizitzan.

Gorputzez ez naz oraindino amaren bestekoa, baina gutxi falta jat. Udagoienean jaki ugari bildu genduzan lo egin bearreko lekuan eta ne-gua lo igaro ostean, bizitza barri bateri asierea emoteko koba zulotik urten genduan, ama eta biok andik gutxira zer gertatuko jakun pentsatu be egin barik.

Pozik gengozan, udabarria zeozer aurreratu zalako, eta beste urte batzutan baño oparoagoa zalako janaria, erleak eten barik egozan ezitia egiten eta gu bien bitartean pozik ezitia goxoa jaten.

Landa batetik bestera pasatzeko, muino batetik igaro bear ginen. Ton-torrean ezin zan geratu, gu maite ez gaituzten begien arriskua egoalako. Zoritxarrez, ez egoan beste biderik.

Alako baten inoz entzun bako animali batzuen otsak entzun neba-

zan eta orregaz batera, sekula etorri ez jatan usaria nagusitu zan nire inguruan.

Amak orduan:

- Korri laztana, txakur zaunkak datozen atx atzetik eta gizakiak ez dira urrin ibilliko, arrisku bizian gagoz.

Esan eta danba! Lenengoz entzun neban gortuteranoiko zarata jasan ezina gailendu zan gu gengozan lekuan, ama odol putzu baten erdian egoala, bere azken atsa-arnasa jaurti eban.

Egoera estu are erdian nire ankek abiada izugarria artu eben eta andik gitxira maldan beera desagertu nintzan, atzera begiratzeko asti barik.

Gelditu orduko, nintaz nagusitu zan dardara. Berealako baten konortea galdu eta lur otza laztandu neban.

Gogoeta au etorri jatan ametsen erara:

"Navajoen izkuntzan artzari, zutik ibiltzen dana esaten jako. Gizakia il eta gero artz biurtzen da, navajo tribuaren siñeskeran. Onegaz batera, lur onetan dagozanean irakatsi batzuk jasoten dabez artzaren gandik, orregatik inoz jateko bear daben baño geiago eizatzen badabe, artzarentzako

izan oi zan gañontzekoa. Gizakia il ostean artz biurtzen da, betiko bizitzarako bidea prestatuz. Artzaren itxuraz abiatuko da gizakia betiko bizitzara."

Ni osterera, gizaki itxurarekin sartu nintzan zirudien paradisuan, apur bat ibili eta nire ama zala esan eustan emakume lirain baten ondora iritsi eta besarkatuaz batera, musuz jan neban nire amatxu laztana.



Kristobal Kolon, Nafarroako IVn Karlos erregearen Semea izan ote zan? (IV)

IIIen Karlos “Biotz Andikoa”

Nafarroaren Ebreuxeko leinua-
ren IIen Karlos “Txarra” eta Baloi-
seko Juana aita/ama bidez jaio zan
Frantziko Mantesen Joliko errian
IIIen Karlos au 1.361eko Uztaillaren
22an.

1.375ean, Gaztelako errege IIen En-
rrikeren alabagaz, Trastamarako
Leonorrekin ezkondu zanean, ba-
keztu ebazan Gaztela ta Nafarrota-
rren artean egon ziran eztabaidak,
gero I Juan eta IIIen Enrikerekin
iraun ebenak.

IIIen Karlosek, Trastamaratar Leonorren ezkontza bidetik, seme/alaba oneik euki ebazan:

Juana Foixeko konde-andrea, Foixe-
ko IIIen Juan kondeagaz ezkondu,
eta 1.383/1.413 urte bitartean bizi
zana.

Nafarroako I Blanka, Nafarroako erre-
getzan bere aita IIIen Karlosen on-
dorengoa izango zana eta 1.385ean
Iruñan jaio eta 1.441ean Jorraillaren
3an Santa Maria de Niebasen il zana.

Maria, 1.388ko urtean jaio ta
1.425ean il.



Margarita, 1.390ko urtean jaio ta 1.403an il.

Beatriz, Martxeko konde-andrea, IIen Jaime Martxeko kon-
deagaz ezkondu zanetik, eta 1.392 jaio ta 1.415ko urtean il
zana.

Isabel Armañakeko konde-andrea, Armañakeko kondea IVn
Juanegaz ezkondu zanetik.

Karlos, 1.397an Dagonillaren 31n Iruñan jaioa, 1.398ko ur-
tean Nafarroako erregearen ondorengo izendatu ebena, eta
1.402an Dagonilaren 12an Lizarran il zana.

Luis, 1.401ean Oliten jaioa eta 1.402an Urrillaren 14an il
zana.



Eta Esparzatar Maria Migelegaz, ezkontzaren kanpoko sasiseme/alaba auek onek ebazan:

Nafarroako Juana, 1.396an Ortiz de Zuñigatar Iñigoren lengo ezkontza bidetik Sada ta Eslabako andrea zana, eta 1.424an Beaumont´tar Luisegaz bigarrenez ezkontuta Leringo konde-andrea izan zana.

Lanzelot, 1.386an jaiotako ta 1.420an Urtarrillaren 8an il zana eta 1.408-1.420ko urte bitartean jabetasun barik egon zalako, Iruñako apezpikutegian gotzaiñaren ordezkoa izan zana.

Godofredo, Korteseko Kondea eta Arellanoko Teresagaz ezkontuta egon zana.

Leonell, 1.441eko urtearen ostetik il zana.

Eta Maria, lekaimea izan zana.

1.378ko urtean bere aitaren aginduz, IIIIn Karlos, Frantziko Vn Karlosegana joan zan ordari/gizon⁽¹⁾ baten buru zanagaz itzegiten.

Vn Karlosek ez eban ontzat artu IIIIn Karlosek bere aitaren aginduz eroaten eban mezua eta atxilotuaz gain, bere aita IIIn Karlosek Frantziko lurraldean euki ebazan jabetasunak kendu eutsezan Txarburgokoarenak izan ezik, auek ondo babes-tuta euki ebazalako.

Vn Karlosek, IIIIn Karlos zipertu edo oñazkatutako galdeketara bialdu ebanean⁽²⁾, IIIn Karlos Logroñoeko Uria bereganat-

tzeko ibili zala jakin eban Frantziko Vn Karlosek, eta Gaztelako IIIn Enrikeri esanda, onek Nafarroa erasotzeko agindu eban, IIIn Karloseri beartuz Brioneseko ongundea siñatu egian.

1.380ko urtean Frantziko Vn Karlos il zanean, VIIn Karlosek askatu eban Nafarroako IIIIn Karlos.

Oraiñarte be bai, baiña emendik aurrera, Nafartarren gortekoak geiago begituten eben Frantziko gortera Gaztelatarren gortera baiño, Frantziko gortea jakituriz eta artu/emoneko arremantetan garbiagoak izan zirelako, Aragoiko gortekoaren antzera.

Eta Nafarroako IIIIn Karlos erregeak emendik aurrera, sendotu ta bizkortu ebazan Nafar izakizunezko almenak, bakean, eder/lanetan eta jaurkintzari, aurrerakuntza aundiak emonda.

Aurrerakuntza onegaz, Gaztela, Aragoi, Frantzia eta Ingalaterrakin bakeztu ebazan arremanak, eta neurri

(1) *Ordaritz*a = *embajador*, *Ordari/gizon taldea* = *conjunto de personas que comprenden una embajada*. (2) *Zipertu edo oñazkatu* = *tortura*. *Oñazkatutako Galdeketa* = *interrogatorio, bajo tormento*.

orreitan euren arteko lankidetasuna be bai, erregeen arteko ezkontzari ta Abiñon´eko Aita Santuari lagunduta.

1.380an Uztaillaren 1ean amaitu ebazan Iruñako Eleiz Nagusiaren konponketak, eta Tafalla ta Oliteko errege jauregiak be eraiki ebazan.

1.387an Urtarrillaren 1ean, bere aita IIIn Karlos il zanean igon eban Nafartarren erregetzazko aulkira, eta Ebreaxeuko konde ta Nemourseko dukea izendatu eben.

1.388an Gaztelako errege ta Bizkai-ko Jauna zana I Juanek, bere seme Gaztelako errege izango zan IIIIn Enrike, Lankasterreko Katalinagaz ezkontzeko ibili zanean, Asturiaseko Printzerria sortu eban, eta eurok izan ziran lenengo Asturiaseko printzeak edo errege-erregiñ gai, Gaztelako erregetza ondore lez jaurkitzeko.

1.402an Aragoiko erregetzagaz ba-keak lortzeko, bere alaba Blanka Siziliako IIIna eta Aragoiko errege

izango zan I Martin gaztea “Gizabideko” deritxonagaz ez-kondu eban, eta elkarrizketa bardin antzeko baten ibili zan Ingeles eta Frantzikoarekin.

1.404ko urtean IIIIn Karlosek, Pariseko alkargoaren bitartez eta Txanpaña ta Brieko jabetasunak frantzezari itxi ondoren, Frantziko VIIn Karlosegaz garbitu ta argitu ebazan Frantzi-ko lurraldeetan euki ebazan Ebreaxeuko Nafar jabetasunak, bere nafartar adizkideak Frantziko gortearen leku garran-tzientetarako izendatzea lortuta.

1.409ko urtean Bartzelonan il zan Nafarroako I Blankaren senarra, “Gizabideko” deritxon Siziliako IIIna eta 1.396ko ur-tean izendatu eben Aragoiko I Martin erregea.

1.412ko urtean Granadako moruen erregetza menperatzeko alegiñetan be ibili zan Gaztelatarrei laguntzen, eta aukera orretan Antekerako Fernando Gaztelako errege/semearen semeakaz ezkondu ebazan Isabel eta Maria bere alabak.

1.413ko urtean IIIIn Karlos onen zeregiñ onenetan, Goiene-ko Auzitegia sortzea izan zan.

1.415eko urtean IIIIn Karlosek, bere alaba Blanka Aragoiko I Martinen alarguna, norekin ezkonduko arazoan aurkeztu zan.

Eta Foix etxeakoak, euren alaba Juana il zanen alarguna IIIIn Juan aurkeztuta, Aragoiko I Fernandok bere bigarren seme Aragoiko IIIn Juan izango zana aurkeztu eutsoen, eta Blanka baiño 12 urte gazteagoa izan arren, IIIIn Karlosek, len Foi-xekoakaz sortu zana Nafartarren erregetza Frantziko errege-tzagaitik iruntsita geratzeko arrizkuan osterata sortu ez egian, bigarren aukera artu eban ontzat, eta Aragoiko IIIn Juanegaz ezkontzeko geratu ziran.

Eta ezkontza au aurrera eroateko, 1.419an Azaroaren 6an Oliten, eta 1.420ko Otsaillaren 18an Guadalajarako egiune-tan aukeratu ziran baldintzak, oneixek izan ziran:

- a) Nemurseko dukadoa artu ondoren, Nafarroako erregetza, I Blankarentzat eta beren ondorengoarentzat izatea.
- b) Nafarroako erregetzan iñungo lurralderik ezin zala zatitu, eta erbesteko erregetza baten menpe geratu.
- d) Nafarroaren jaurkintzazko gortearen ardurazko lan to-kiak, Nafartarrentzat bakarrik izan zitezela.

IIIIn Karlosek neurri orreikaz, naita Nafarroako erregetza Trastamarako etxeagaz ezkondu arren, bere erregetzazko eskubidearen izatasuna ondo lotuta gura eban, Nafartarren erreñua baldintza sendoakaz, askatasun guztiegaz irautea gure ebalako.





1.423ko Urtarrillaren 20an IIIIn Karlosek, I Juan Gaztelakoa Asturiasen egin eban antzera, Bianako printzerria sortu eban Nafar erregetzaren ondorengotzat, eta beren billoba IVn Karlos izango zan lenengo errege-gaia, Bianako erakunde barri orrek izendatuko ebena.

1.425ean Iraillaren 8an Olitzen il zan Nafarroako IIIIn Karlos “Biotz Andiko” errege au, Nafarroako jaurkintzaren alde alegiñ-on ausdiak egin da gero.

I Blanka, Nafarroako erregiña.

Nafarroako “Biotz Andiko” errege zan IIIIn Karlos eta bere emazte Trastamarako Leonor, IIIn Enrike Gaztelako erregearen arreba zanaren bidetik, Iruñan jaio zan Ebreuxeko leiñuko zana Nafarroako I Blanka au 1.385eko urtean.

Nire maisu eta lagun andia izan zan San Sebastiantar Jose Marik (Latxaga) esaten eustan Nafarroako I Blanka erregiñagaitik, bera izan zala andra eder ta politena Nafarroa osoan.

I Blankaren bizi kondaira.

1.401eko urtean il zan Siziliako erreñuaren jabe izan zan Maria, Aragoiko erregearen seme I Martin gazteagaz ezkontuta egon zana, au Siziliako erreñuagaz jabe geratuta, naita Siziliako jableduna bere lenengo emaztea izan arren.

1.402ko Urtarrillaren 21ean Nafarroako IIIIn Karlosek, Aragoiko erregetzagaz bakeak lortu gurean, bere alaba I Blanka, Siziliako IIIna eta Aragoiko errege izango zan I Martin “Gizabidekoa” deritxon seme gazteagaz ezkontzea erabagi eban.

1.402ko Lorailaren 21ean Kataniako Urian ordezeko legean ezkondu ebazan, Nafarroako Bake-danotar Diego ta Mosentar Lionel, I Blankaren ordezkariak zirala.

1.402ko Azaroaren 9an Bernardo de Kabrerak bideratzen eban itsasontzi baten joaten da I Blanka Siziliako Ugartera.

1.402an Abenduko 26an ezkondu ebazan Migel Mari lekaideak, Nafarroako I Blanka ta Aragoiko I Martin gaztea.

I Blanka, Sizilian egon zan bitartean, ez eban artu arrera edo jardunbide onik, eta bere aita IIIIn Karlosek berari emoten eutsoen arrera orregaitik atsekaberatuz, serbitzariak leporatu eutsen, Blankak ezkontzatik illabete gitxi barru euki eben ume-galtzea, eta baita Siziliako gortekoak salatu, bere alaba Blankari ezkontzaren ordezeko sariak ez eutsozala emoten.

1.404an Uztaillaren 17an emon eutsozan ezkontzako sari orreik, Paterno, Mineo, Lentini, Frankabilla eta Bizzini’ko erriaren jabetasunagaz.

1.404ko Urtarrillaren 22an “Vicaria” edo erregetzaren ordezekoa izendatzen dabe I Blanka, bere senarraren alde egite edo ta urruntzerakoan.

1.405ean I Martin Aragoira joaten da aldi baterako eta I Blanka berak jaurkitu eban Sizilia bere aolkularitzazko ordezkariaren laguntzagaz.

Eta 1.405ean Dagonillako illean I Martin itzuli zanean amaitu ziran I Blankaren errege ordezekoak.

1.406an Abenduaren 17an euki eben euren lenengo semea, Martiñen izena ipini eutsoenai Aragoi-

(1) Zorizale = aventurero.

ko aita ta aititeri euki eutsoen begirune edo omenagaitik.

1.407ko Dagonillaren illean eta zortzi illabete eukezala il jakien, Aragoi ta Siziliako ondorengo izan bear zan Martin umea.

1.408an Dagonillaren 13an I Blanka ostera izendatzen dabe erregetzaren ordezkoa, bere senar I Martin Zerdeñaren Ugarteko erreñura joateko asmoa euki ebalako bere gudalozte indartzuakaz.

1.408an Urrillaren 3an urten eban Sizilatik I Martin Zerdeñako Ugarterantza.

Eta 1.409an Uztaillako 25ean il zan I Martin au, Kagliariko errian sukargaitzak artuta.

1.409ko Dagonillaren 7an I Blankaren aitagiñerraba Aragoiko I Fernandok "Arteza" edo "Antekerakoa" deritxon onek, on artu eban bere seme I Martin gazteak agindu ebana, eta I Blanka ostera "Vicaria" izendatuta aurrera egin eban Siziliako erregetzaren ordezkotzagaz.

III In Karlosek, laster asi zan I Blanka ezkontzeko ardurakin eta 1.409ko urtea amaitzen egoala, Frantziko Isabelen nebeagaz, Babierako-Ingolstadt´tar Luisekin ezkontzeko asi ebazan atonketak. 1.410eko urtearen asieran apurtu ziranak.

1.410eko urtean beste ezkontza bat be atondu eutsoen I Blankari, Bar´eko I Roberto Dukearen seme Eduardorekin, ezerezean geratu zana.

1.410ean Lorailaren 31n I Blankaren senarra izan zana eta "Biotz onekua" deritxonai I Martin Aragoiko errege izateko zana il zan, eta I Blanka Siziliako erregetzan bere zeregiñ onagaitik, Siziliatarrak



erregearen ordezkotzan iraun egiala gura eben eta III In Federico Siziliako errege izan zan ondorengo bategaz Peraltako Nikolasekin ezkondu gura eben.

Portugaleko I Juanek be, bere seme bategaz ezkondu gura eban, Siziliako ugartearen jabetza berak gura ebalako.

Atutxa´tar Paul
Zornotzan 2.015eko urtean Epaillaren 17´an



Euskaldun barrientzat ikasten

Zazpi utsak



Sudoku

3								5
			7					9
1	9	4		8		2		
8			1		7		5	
	5						4	
	7		8		5			1
		5		2		9	8	6
2					6			
9								3

3	2	5	8	7	4	6	1	9
4	6	1	9	5	3	8	2	7
7	4	5	3	2	1	9	8	6
4	7	2	8	6	5	3	9	1
6	5	1	2	3	9	7	4	8
8	3	9	1	4	7	6	5	2
1	9	4	5	8	3	2	6	7
5	6	8	7	1	2	4	3	9
3	2	7	6	9	4	8	1	5

ARRPIDETZAKO TXARTELA

ZER aldizkaria artu gura dot eta bialdu egidazue zuzenbide onetara:

..... tar

..... kalean (auzoan)..... zenbakian

..... errian, errialdean (probintzian)

Arpidetza ordaintzeko diru-etxera (bankura) bialdu ordain-txartela,

an daukadan zenbakidun diru-kontura.

ZABALDU DAGIZUN "ZER". Arpidedun bakoitxak billatu begi beste bat!

XALBADORREN ERIOTZA LETRA

**Adiskide bat bazen
benetan biozbera
poesiaren egoek
sentimenduzko bertsoek
antzaldatzen zutena**

**Plazetako kantari
bakardadez josia
itzen lioa iruten
bere barnean irauten
oinazez ikasia
ikasia**

**Non ago? zer larretan
urepeleko artzaina
mendi egaletan gora
oroitzapenen gerora
iesetan joan intzana**

**Esia urraturik
libratu uen kanta
lotura guztietatik
gorputzaren mugetatik
aske sentitu nairik**

**Azken atsa uela
bertsorik sakonena
inoiz esan ezin diren
estalitako egien
oiurik bortitzena
bortitzena**

**Non ago? zer larretan
urepeleko artzaina
mendi egaletan gora
oroitzapenen gerora
iesetan joan intzana**

